

## Aldundiak "Liburutekia» jardunaldien bigarren edizioa aurkeztu du, Foru Liburutegian

- **Literatura eta teknologia berriei buruzko jardunaldien II. edizioa Foru Liburutegian egindo da, 2013ko azaroaren 12 eta 13an.**
- **Helburua kultura arloan teknologia berriak erabiltzeko gakoak ezagutaraztea da.**
- **Argitaletxeetako ordezkariek, liburu-dendetakoek, idazleek eta blogariek hartuko dute parte, formatu berriei, Interneteko diskurtso narratiboan eragin dituen aldaketei, irakurtzeko sistema berriei, eta abarri buruz eztabaidatzeko.**
- **Liburutekia literaturari buruz hausnartu eta hitz egiteko espazioa da. Profesionalei zein interesa duen orori zuzenduta dago.**

Bizkaiko Foru Aldundiak Literatura eta teknologia berriei buruzko jardunaldien II. edizioa programatu du azaroaren 12 eta 13rako; Foru Liburutegian aurkeztuko dira jardunaldiak.

Jardunaldiei hasiera emateko, azaroaren 12an, Kirmen Uribe idazleak hitzaldia emango du, eta teknologia berriek bere obran izan duten eragina aztertuko du. Hitzaldia 13:00etatik aurrera izango da.

Arratsaldean, 16:30etik aurrera, "Editoriales vascas. Hacia un nuevo mercado» hitzaldia eskainiko da. Gai horren inguruan eztabaidatzeko, Elkar argitaletxeko arduraduna den Olatz Osa eta Susa argitaletxeko Mikel Elorza, Armiarma-Literaturaren sarean proiektuaren koordinatzailea ere badena, izango dira.

18:00etan Pablo Mazo kazetari eta filosofoa, Gonzalo Garrido idazle eta komunikazio-aholkularia eta Mikel Alvira idazlea arituko dira. Saio horretan, lekutze- eta hedatze-sistema berriak aztertuko dituzte (Booktrailer-ak, sare sozialak, transmedia narratiba).

Azaroaren 12ko jardunaldiari amaiera emateko, 19:30eko saioan, honako hauek parte hartuko dute: Alejandro Fernandez Aldasoro erredaktore sortzaileak, Alex Oviedo idazle eta editoreak, eta Ivan Repila diseinatzaile grafikoak. Hiruren artean, teknologia berrien eta sare sozialen alde on eta txarrak aztertuko dituzte, idazleen ikuspuntutik.

Liburutekia jardunaldiako bigarren eguna azaroaren 13a izango da, eta 12:00etan emango zaio hasiera. Saio horretan, liburutegien eta hezkuntza zentroen lana eta elkarren arteko harremana aztertuko dira. "Bibliotecas y centros educativos: mirando al futuro» izenburuean, parte-hartzaileek hausnarketa egingo dute, teknologia berriak ikasle eta erabiltzaileei edukiak eskaintzeko lagungarri diren ala ez erabakitzeko. Honako hauek arituko dira eztabaidan: Muskizeko liburuzaina den Fernando Juarez, eta Marian Mugerza Judez, Deustuko Unibertsitatean Filologia Hispanikoan lizentziatua eta 1986tik irakasle dena.

13:00etan, Manuel Ortuño editoreak eta Txetxu Barandiaran pedagogoak Texturas aldizkariari buruz hitz egingo dute (liburuaren iraultzarako erreferentziako foroa da).

Irakurle berriaren profilari dagokionez, 16:30etik aurrera eztabaidatuko da irakurleak edo joerak sortzeko blogek eta sare sozialek duten eragina. Mª Jose Acuña, Vicente Luis Mora eta Javier Morote izango dira eztabaidan arituko direnak.

18:00etan, Contexto taldeko hiru ordezkarik hartuko dute hitza. Contexto talde berean elkartutako argitaletxe independenteek osatzen dute, baina bakoitzak bere ikuspuntua dauka. Impedimenta, Libros del Asteroide eta Nórdica argitaletxeetako editore hauek izango dira parte-hartzaileak: Enrique Redel, Luis Solano eta Diego Moreno.

2013ko Liburutekia jardunaldiei amaiera emateko, 19:30ean "¿Y AHORA QUÉ?" hitzaldia eskainiko da. Fernando Tarancón, Javier Camarak eta Javi Nevadok liburutegiek sistema berrietara egokitzeko duten erronkari buruz hitz egingo dute.

Jardunaldiak gai horretan interesa duten guztiei zuzenduta daude, eta doakoak dira.

## **La Diputación presenta las segundas jornadas "Liburutekia" en la Biblioteca Foral de Bizkaia**

- **Las II Jornadas sobre Literatura y Nuevas Tecnologías se desarrollarán en la Biblioteca Foral de Bizkaia durante los días 12 y 13 de noviembre de 2013.**
- **Su objetivo es dar a conocer las claves para el uso de las nuevas tecnologías en el mundo de la cultura.**
- **Representantes de la edición, librerías, escritores o blogueros debatirán sobre los nuevos formatos, los cambios en el discurso narrativo con la llegada de internet, los nuevos sistemas de lectura, etc.**
- **Liburutekia es un espacio para reflexionar y hablar sobre literatura. Está dirigido a profesionales, pero también al público en general.**

La Diputación Foral de Bizkaia ha programado para los días 12 y 13 de noviembre, las II Jornadas sobre Literatura y Nuevas Tecnologías en la Biblioteca Foral de Bizkaia.

La charla inaugural del día 12 de noviembre la impartirá el escritor Kirmen Uribe quien analizará cómo han influido las nuevas tecnologías en su obra. Será a partir de las 13:00 horas.

Por la tarde, a partir de las 16.30 h., y bajo el título Editoriales vascas. Hacia un nuevo mercado, debatirán sobre dicho tema, Olatz Osa, responsable de la editorial Elkar y Mikel Elorza, de la editorial Susa y responsable de coordinar del proyecto Armiarma (literatura en la red).

A las 18:00h., intervendrán el periodista y filósofo Pablo Mazo; el escritor y consultor de comunicación, Gonzalo Garrido y el escritor Mikel Alvira. En la sesión, analizarán los nuevos sistemas de posicionamiento y difusión (Booktrailers, redes sociales, narrativa transmedia).

La jornada del 12 de noviembre concluirá con el encuentro que se celebrará a las 19:30, en la que participarán el redactor creativo, Alejandro Fernández Aldasoro; el escritor y editor Alex Oviedo y el diseñador gráfico Iván Repila. Analizarán los pros y los contras de las nuevas tecnologías y redes sociales desde el punto de vista de los escritores.

La segunda jornada de Liburutekia arrancará el 13 de noviembre a las 12:00h., analizando la labor y relación de las bibliotecas y los centros educativos. Bajo el título 'bibliotecas y centros educativos: mirando al futuro', los participantes en el encuentro se preguntarán si ayudan las nuevas tecnologías a ofrecer contenidos a alumnos, alumnas y personas usuarias. Debatirán sobre el tema: Fernando Juárez, bibliotecario de Muskiz y Marian Mugerza Judez, licenciada en Filología hispánica por la Universidad de Deusto y que ejerce la docencia desde el año 1986.

A las 13:00h, el editor Manuel Ortúñoz y el pedagogo Txetxu Barandiarán intervendrán sobre las texturas (un foro de referencia para la revolución del libro).

Sobre el perfil del nuevo lector, la influencia de los blogs y de las redes sociales para crear lectores o tendencias debatirán a partir de las 16:30, Ma José Acuña, Vicente Luis Mora y Javier Morote.

A las 18:00 horas intervendrán tres representantes del grupo Contexto, editoriales independientes unidas en un mismo grupo pero con diferentes puntos de vista. En concreto estarán los editores de Impedimenta, Libros del Asteroide y Nórdica: Enrique Redel, Luis Solano y Diego Moreno.

Las jornadas de Liburutekia 2013 se clausurarán con la sesión de las 19:30 ¿Y AHORA QUÉ?, Fernando Tarancón, Javier Cámara y Javi Nevado debatirán sobre la situación de las librerías ante el reto de adaptarse a los nuevos sistemas.

Las jornadas están dirigidas a todas las personas interesadas en la materia y serán gratuitas.